



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

654/2015 FORU AGINDUA, abenduaren 21koa, taldeen baterakuntza fiskaleko araubideko alta eta haien osaeraren aldaketa jakinarazteko 228 eredua onartzen duena.

Urriaren 20ko 2/2015 Foru Dekretu Arauak, Sozietateen gaineko Zerga, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga aldatzen dituenak, lurralde erkidean ezarritako egitura berrira egokitu du sozietateen gaineko zergaren baterakuntza fiskalaren araubidea, nahitaezko beharkizuna baitugu hori Ekonomia Itunak jasotakoaren arabera.

2015. urtera arte talde bateratuen egituran beti zegoen taldeko entitate nagusi bat eta menpeko entitate bat edo gehiago, eta horiek guztiek foru araudiaren arabera tributatzen zutela. Horrelako taldeei talde bertikalak esaten zitzaien.

Aldiz, aipaturiko foru dekretu araua onartu zenetik aurrera, talde bateratuaren egitura horren parean, balio berdineko beste bat agertu da, eta haren ezaugarriak behinena da entitate nagusiaren egoitza ez dagoela lurralde espainiarrean edo lurralde erkidean kokatuta dagoela, halako moduz non entitate nagusi hori baterakuntzaren perimetrotik kanpo geratzen baita, perimetro horrek foru lurraldean egoiliar diren menpeko entitateak bakarrik hartzen dituelako.

Era horretan, entitate «nagusirik» gabeko taldeak egoteko aukera sortzen da, foru araudiaren arabera tributatzen dutenak, eta horiei talde horizontalak deitzen zaie.

Talde horizontal horien osaketan, entitate «ordezkariaren» figura sortzen da. Figura berri honek entitate nagusiaren eginkizuna du berez, Administrazioaren

jarduketa guztiak harekin egitekoak direla jotzen baita, eta, gainera, bera da arduraduna zerga ordaintzeari eta bestelako obligazioak betetzeari dagokionez.

Horrek beharrezko egin du talde bateratuei erreferentzia egiten dieten prezeptu guztiak egokitzea tipologia desberdineko taldeak (horizontalak eta bertikalak) baimentzeko eta haien existentzia aitortzeko, erregulazioak batzuei zein besteei berdin eragin diezaien.

Zentzu horretan, xedapen gehiago aldatu dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan eta zerga horren erregelamenduan.

Aldaketa horien ondoren, beharrezkoa da 228 eredua ere aldatzea, alegia, talde bateratuen alta eta osaera jakinarazteko erabiltzen dena, eredua haien osaera berrira egokitzen aldera.

Horren indarrez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 228 eredua onartzea.

Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, taldeen baterakuntza fiskaleko araubideko alta eta haien osaeraren aldaketa jakinarazteko erabili behar duten 228 eredua onartzen da. Foru agindu honen eranskinean dago 228 eredua.

2. artikulua. 228 eredua aurkezteko betebeharra.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 2. artikulua 5. apartatuaren arabera, zergak Gipuzkoako lurralde historikoan ordaintzen dituzten talde bateratuetako entitate ordezkariak aurkeztu behar dute 228 eredua, honako egoera hauetan:

a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 88. artikuluan (6. apartatuko lehen paragrafoan) aurreikusten den alta jakinarazteko bateratze fiskaleko araubidea aukeratzen dutenean.

b) Baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 85. artikulua 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera eratutako talde fiskal bat bada, sozietateen gaineko zergan baterakuntza fiskaleko araubidea aukeratzen dutenean, betiere

honako hauek jakinarazi ditzaten: alta eman izana, zeintzuk diren foru arau horrek 88. artikulua 6. apartatuko bigarren paragrafoan jasotako entitate ordezkariak eta, hala badagokio, zein den foru arau horrek 5. artikulua 2. apartatuan jasotako eragiketa bolumenik handiena duen entitatea.

c) Sozietateen gaineko zergan baterakuntza fiskaleko araubideari jarraituz ordaindu arren, taldea osatzen duten entitateen osaera aldatzen denean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 88. artikulua 6. apartatuaren laugarren paragrafoaren arabera.

3. artikulua. 228 eredua aurkezteko moduak.

Bakarrik telematikoki aurkeztu behar da 228 eredua, eta zergadunak berak edo haren ordezkari batek aurkez dezake.

Fitxategi bat helaraziz aurkeztu behar da 228 eredua, zergekin lotutako izapideak elektronikoki egiteko betebeharra arautzen duen azaroaren 24ko 1.011/2010 Foru Aginduan xedatutakoari jarraikiz.

4. artikulua. 228 eredua aurkezteko epea.

Hauek dira 228 eredua aurkezteko epeak:

a) Alta jakinarazteko, ondorioak dituen zergaldiaren aurreko lehen zergaldiko azken hilabetean.

b) Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 85. artikulua 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera eratutako talde fiskal baten kasuan, epea hiru hilabetekoa izango da honako hauek jakinarazteko: alta eman izana, zeintzuk diren foru arau horrek 88. artikulua 6. apartatuko bigarren paragrafoan jasotako entitate ordezkariak eta, hala badagokio, zein den foru arau horrek 5. artikulua 2. apartatuan jasotako eragiketa bolumenik handiena duen entitatea.

c) Talde fiskalaren osaeraren aldaketa jakinarazteko, aldaketa egin eta bi hilabeteko epean.

5. artikulua. 228 eredua aurkezteko tokia.

1. Telematikoki igortzekoak diren fitxategi informatizatuak prestatzeko, Ogasun eta Finantza Departamentuaren web gune ofizialean dagoen laguntza programa erabiliko da; Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ere eskuratu dezakete programa hori (www.gfaegoitza.eus).

Fitxategi elektronikoa igortzeko, laguntza programak berak erraztuko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatuta dagoen «Gipuzkoataria» zerbitzu informatikoen atarian sartzea. Behar den orrian behin sartuta, identifikazio sistemak eskatzen dituen datuak beteko dira lehen-lehenik, eta fitxategia bidaliko da gero.

Igorritako fitxategiarekin batera foru agindu honen 6. artikuluan aipatzen den dokumentazioa bidali behar bada, azken hori bide telematikoz aurkeztuko da, bidezko fitxategiak igorrita. Horretarako, dokumentazioa aurkezteko plataforma orokorra erabiliko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan dagoen «Gipuzkoataria» zerbitzuan sartuta.

Behin fitxategia igorrita, zergadunak aurkeztutako jakinarazpenaren kopia bat inprimatu ahal izango du, non «prozesaketaren zain» esapidea jasoko baita.

2. Geroago, Zerga Administrazioak berari igorritako informazioa eta, hala badagokio, dokumentazioa egiaztatuko ditu, eta honela jokatu du:

a) Jakinarazpena zuzena bada, Administrazioak hori zergadunaren eskura jarriko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatutako «Gipuzkoataria» zerbitzu informatikoen atarian, eta hark inprimatu ahal izango du. Jakinarazpenak zigilu digital bat eramango du, telematikoki aurkeztu izana frogatze aldera.

Jakinarazpena taldearen altari buruzkoa denean, Zerga Administrazioak emandako taldearen zenbakia zehaztuko du, gainera, eta 2015eko ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bitartez onarturiko Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak 41. artikulua 2. apartatuan aipatutako jakinarazpena burututzat emango da.

Zergadunari jakinarazpenaren prozesaketaren datuen berri eman eta jakinarazpena haren esku jartze aldera, mezu elektroniko bat bidaliko zaio hark ereduan adierazten duen posta helbidera.

b) Igorritako informazioa okerra dela edo erroreak dituela uste denean, edo errekeritutako dokumentazioa aurkezten ez denean, zergadunari jakinaraziko zaizkio berak aurkeztutako jakinarazpenaren errefusa eta horren arrazoiak, eta 228 ereduaren aurkezpena baliogabea izango da. Jakinarazpen hori idatziz bidaliko zaio, zergadunak zehaztutako helbidera mezu elektronikoa igorritik ere egitea eragotzi gabe. zergadunak 228 eredu berri bat aurkeztu beharko du, erroreak konponduta edo berari errekeritutako dokumentazioa aurkeztuta.

6. artikulua. 228 ereduarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak.

Taldeko entitateek bateratze fiskaleko araubidea aukeratzeko erabakien kopia bat aurkeztu behar dute 228 ereduarekin batera.

Hala ere, aipatutako dokumentua ez da eskatuko dagoeneko Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku badago (036 o 60S ereduaren bidez).

Xedapen indargabetzailea.

Foru agindu hau indarrean sartzen den egunean, indargabetuta geldituko da 2012ko abenduaren 19ko 1.159/2012 Foru Agindua, taldeen bateratze fiskaleko araubideko alta eta haien osaeraren aldaketa jakinarazteko 228 ereduaren onartzen duena.

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru agindu hau. Halaber, aplikagarria izango da 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ematen diren altak nahiz indarrean jarri ondoren talde fiskalaren osaeran egiten diren aldaketak jakinarazteko, betiere eragotzi gabe Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita batgarren xedapen iragankorrean jasotakoa.

Donostia, 2015eko abenduaren 21a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(10453)

